



Etxekua oiñarri

GEHIXAGO ETA HOBETO programiaren barruan Bergarako Udaleko Euskara batzordiak ume eta gurasuendako argitaratutako aldizkaritxua.

IEPA LAGUNOK!

Zuekin naiz berriz be. Ikasturte honetako hiru Apatxi aliak desberdiñak izango ditugu; alde batetik, gurasuei bertako euskaria lantzeko bialtzen gontsen ariketak be hemen bertan txertatuko ditugulako eta, bestetik, ikastetxietatik zuzenian bialduko ditugulako etxietara.



la ba, ondo-ondo pasau eta aurkeztu sariketara, sari polittak zozketatuko ditugu eta!

AHOLKUAK!

Bertako euskalkixa lantzeko sortutako unidate didaktikuak eta ariketak eta "Bergara aldeko hiztegia" Udalaren webgunian ikusi zeinkie:
<http://www.bergara.net/Euskara>.

URREZKO ARAUA



Oraingo alian, sarritan landutako bi akats jorratuko ditugu. Alde batetik, *Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork* aditzen arteko desberdintasunak eta, beste alde batetik, harridurazko esaldixak.

1- **Pertsona batek beste norbait ikusi**, eruan, maitte, ezagutu, jo, jaso, bota...dabela esatian "ikusit zaitut", "eruan zaittugu", "maitte nazue"... moduko aditzak erabili bihar dira (Nor-Nork erakuak). Eta ez, "~~ikusit dotsut~~" "~~eruan dotsugu~~", "~~maitte dostazue~~", "~~jo zotsuen~~"...modukuak (Nor-Nori-Nork erakuak). Bi ohar:

- 1.- "Ikusi dotsut" ondo legoke, "nik zuri ipurdia ikusi dotsut" balitz. Eta "eruan dotsugu" be bai, "guk zuri zeozer eruan" baldin bada.
- 2.- Bergarako aditz taulak Interneten be topau zeinkie:

http://www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz_taulak




Adibide onak eta okerrak:

	
<ul style="list-style-type: none"> • <i>Amatxo, aitatxo, izugarri maitte zaittuet!</i> • <i>Maitane, aurrekuan kalian ikusi ziñuztan.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Amatxo, aitatxo, izugarri maitte dotsuet!</i> • <i>Maitane, aurrekuan kalian ikusi dotsua.</i>

2- Harridurazko esaldixak erabiltzen ditugunian, **erdarazko "que" sartzeko joeria daukagu, baiña euskaraz badauzkagu esaldi horrek egoki erabiltzeko baliabidiak**. Esate baterako:

- o *Ze ondo pasau doten!*
- o *Ze trauksilla zaren!*
- o *Hori da hori mutil liraiña!*

Ikurren bidez zeintzundako dan egokixa adierazi nahi da:

 3-6 urtekuendako
  7-9 urtekuendako
  10-12 urtekuendako



Nagusixak edota umiak nagusixen laguntzarekin egittekuak

GEHIXAGO ETA HOBETO programaren bultzatzaillik:

BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA, JARDUN EUSKARA ELKARTIA, SAN MARTIN ESKOLIA, MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLIA, ARANZADI IKASTOLIA ETA IPINTZA INSTITUTUA .

LEHOI BATEN BILLA

Kantatziaz gain mimika be egittia proposatzen dotsuegu. Ezkerreko taulan dagoena kantua da eta eskumakuan dagoena mimikaz egin biharrekua.

Eta behin eta berriz errepikatu eta adjetibuak landu nahi badittuzue, "haundixena" adjetibua azaltzen dan tokixan zuek beste adjetibo batzuk be erabili ahal dittuzue; adibidez; polittena, ederreña, gaiztuena, zakarreña...

*Lehoi baten billa noia
haundixena hartuko dot
ez daukat bilddurrik
begira zenbat lore!
aja! aja!*

- oiñez juatiaren antzezpena
- besuak asko zabaldu
- ausart aurpegixa jarri eta hatz batekin ezezko keiñua egin
- hatz erakusliarekin lurra seiñalatu
- eskuak gerrixan jarri eta gorputza alde batera eta bestera mobidu.

Nundik hartutakua: Aisia.net (kantua entzuteko aukeria be badago)

AHO-KORAPILLUAK SORTZEN

Saiatu zarete sekula aho korapilluak sortzen? Oso ondo pasau zeinkie. Begira! Nik adjetibo batzuk proposatzen dotsuet, baiña zuek askoz gehixago jakingo dittuzue, eta mordoxka bat batuta aho-korapillo polittak sortu ahal dittuzue.

Esate baterako:

On: Zelakopolittipinpirinlirainmaitagarriazaren.

Txar: Aldeizuhemendiklelotrauskilburuhaundi hankaokerhorrek!

On-txar: Zatozhonaedermaitagarrilepokersudurraundi hori!



Adjetoibo gehixago topau nahi badittuzue, Udalaren webgunian

Bergara aldeko hiztegian topau zeinkie: <http://www.bergara.net/Euskara>. Hemen batzuk:

- Izaera adieraztekuak: *zabala, alaixa, atsegiña, lasaixa, bizixa, bromazalia, zintzua, argixa, berekoia, jatorra, memelua, ipurterria, ganorabakua, berritsua, kaskariña, pizpiriña, garbosia...*
- Itxuriaren araberakua: *liraiña, beltzarana, illetsua, indartsua, ariña, azkarra, lerdena, gizena, argala, kakanarrua, kankaillua...*

ADITZEN ITSASONTZIXA

Hemen daukazue aditza lantzeko joko polit bat, itsasontzien jokuan oinarrituta.

Azalpena: Jokalari bakoitzak bere taula batian itsasontzixak marraztuko ditu (bestiak ikusi barik): hiru laukittako itsasontzi bat, bi laukittako bi itsasontzi eta lauki bakarreko hiru itsasontzi. Beste taula bat be biharko dau jaurtiketak markatzeko; hortaz, jokalari bakoitzak bi taula izatia komeni izaten da.

Zela jokatu: koordenatuak (A5) emon ordez, A jokalarixak esaldi bat osatu biharko dau, aditz eta guzti. Esaldixa zuzen esan badau B jokalarixak bere taulan dauzkan itsasontzixen arabera erantzun biharko dotsa.

Adibidez:

- A jokalarixa: "Guk zu ikusi zaittugu".
- B-k aukera batzuk dauzka:
- "Ikutua" (itsasontziren baten laukixa bada)
- "Hondoratua" (lauki horrekin itsasontzixa osorik hondoratzen bada)
- "Kale" (lauki horretan itsasontzirik ez badago)

Esaldixa gaizki osatuta baldin badago, beste jokalarixak bi aukera edukiko ditu itsasontzixak nun daren asmatzeko.



ZUZEN ESAN DABEN JAKITTEKO TAULA LAGUNGARRIXA

Nor-Nork (Indikatibua oraiñaldixa)

	NI	HAURA	GU	ZU	ZUEK	HAREK
NIK		Dot		Zaittut	Zaittuet	Dittut
HAREK	Nau	Dau	Gaittu	Zaittu	Zaittue	Dittu
GUK		Dogu		Zaittugu	Zaittuegu	Dittugu
ZUK	Nazu	Dozu	Gaittuzu			Dittuzu
ZUEK	Nazue	Dozue	Gaittuzue			Dittuzue
HAREK	Nabe	Dabe	Gaittue	Zaittue	Zaittue	Dittue

Eta jokatzeko halako bi taula huts biharko dittuzue, nahi badozue zeuek egin edo, bestela Interneten be topau ahal izango dittuzue, <http://www.bergara.net/Euskara> helbidian, "Gehixago eta Hobeto" atalian sartuta (eta lehenaldixarekin egin nahi badozue be bertan daukazue osatutako taula).

GURASUENDAKO ARIKETAK



Olentzero atzo gabian etorri zan, goiza da eta aitatxo eta Maitaneren arteko elkarrizketa da hau. Aukera bat zuzena eta beste bat okerra da. Zein da zuzena?

- A) Aitatxo! Ikusi ze opari politta! Ta gaiñera laga gontsan turroi dana jan dau. Zuk ikusi jatzun?

B) Aitatxo! Ikusi ze opari politta! Ta gaiñera laga gontsan turroi dana jan dau. Zuk ikusi ziñuan?
- A) Urte guztian zihar ondo portatuko nitzan, ze ikusi zelako oparixak jaso dittudan! Baiña, mendi puntatik Olentzerok zela ikusten nau?

B) Urte guztian zihar ondo portatuko nitzan, ze ikusi zelako oparixak jaso dittudan! Baiña, mendi puntatik Olentzerok zela ikusten dosta?
- A) Bueno Maitane, orain aittitta-amamen etxera eruango zaittut. Hara be olentzero aillegauko zan eta!

B) Bueno Maitane, orain aittitta-amamen etxera eruango dotsut. Hara be olentzero aillegauko zan eta!
- A) Ze ondo! Aittitta eta amama poz-pozik jarriko dira gu ikusten gaittuztenian.

B) Ze ondo! Aittitta eta amama poz-pozik jarriko dira guri ikusten doskuenian.
- A) Aupa Maitane! Ikusi Olentzerok zenbat maitte zaittuan, hemen be erregalo polittak laga dotsu eta!

B) Aupa Maitane! Ikusi Olentzerok zenbat maitte dotsun, hemen be erregalo polittak laga dotsu eta!

SARIXEN ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ORRIALDIA

Umiendako ariketia

Lehentxuago aho-korapilluak sortzen ibilli zara, ezta? Ba, gehixen gustau jatzun bi aho-korapilluak hemen behian idatzi.

1.-

2.-

Guraso euskaldunendako ariketia

Aurreko orrixan egin dittuzuen ariketen erantzun zuzenak idatzi hemen.

1-

2-

3-

4-

5-

***El apoyo de casa es básico***

Los padres y madres que no sabéis euskera también podéis ayudar a vuestros/as hijos/as a mejorar el nivel de euskera y animarles a que participen en el sorteo de premios. Asimismo, os proponemos un ejercicio para compartirlo con ellos/ellas y lo presentéis también al concurso.

Os proponemos rellenar las frases de abajo enseñándoles 4 adjetivos para calificar a personas y aprendiendo de ellos otros 4 en euskera.

Guraso erdaldunendako ariketia

Zure gurasuek euskaraz ez badakixe, danok batera egitteko ariketa bat proposatuko detsuegu. Zuk gurasuei Apatxi atal honetan azaldu diran lau adjetibo erakutsi, eta non eta noiz erabiltzen diran azaldu biharko dotsezu. Gurasuak, berriz, berak gaztelaniaz erabiltzen dittuan lau adjetibo zuri erakutsi eta hemen idatzi biharko dittuzue.

¡Quéy eres!

Eresy, morena salada.

Zelako eta zaren!

Zu bai zarela eta

Sarixen zozketan parte hartu nahi badozu, bete orrialde honetan eskatzen diren erantzunak eta ikastetxian dagon **Apatxi buzoian sartu edo Udaletxeko Euskara Zerbitzura eruan abenduaren 22a** baiño lehen.

